



**SAGARDOAREN
LURRALDEA**

el territorio de la sidra

45. SANTA ANA 2020

SAGARDO EGUNA
ASTIGARRAGA
UZTAILAK 26



SANTA ANA, ASTIGARRAKO 45. SAGARDO EGUNA 1976-2020



Azken 45 urtetan Sagardo Egunak festa egun bihurtu dira. Herrietako kultur eta kirol taldeek sagardogileekin batera, sagardoa botilatik eta herriko kaleetan dastatzen ematen dute eta asko dira beren egutegian garrantzia berezia hartu dutenak. 1976an Euskal Herriko lehenengo Sagardo Eguna ospatu zen Astigarragan eta hemendik aurrera, Sagardo Egun asko ospatu dira Euskal Herria osoko herrietan, Astigarraga izan delarik denen aitzindaria.

1976, urte berezia izan zen, herria askatasun gosez zegoen. Astigarraga orduan Donostiako auzoa zen, eta 15 urtetik 20 urte bitarteko gazte kuadrilla elkartu zen hainbat jarduera egiteko asmoz. Orduan sortu zen Astigar Elkartea (Euskal Ohiturazaleen Elkartea) eta honekin batera, Euskal Herriko lehenengo Sagardo Eguna ospatu zen Astigarragan.

Hala, urte hartako festa egitarauak erabateko aldaketa izan zuen: parte hartze handiko danborrada, 40 lagunek osaturiko soka dantza, oilasko jokoak, sagardo dastaketa, erakusketa eta abar.

Hurrengo lerroetan, **Astigar Elkarateak** bizitako esperientzia kontatzen da.

1976

Santa Ana egunean aspaldiko urteetan zehar **sagardo lehiaketa** egiten zen, baita sagardo botatzaileen lehiaketa ere, azken urteetan. Laster konturatu ginen horrek aldaketa bat behar zuela, ez zela batere erakargarria, eta, gainera jendea aspertu egiten zela. Bestalde, herriko gazte batzuek, Errioxako zenbait herritan, upategiek ardoa herritarrei eskeintzen zietela ikusi zuten.



Hori dena kontuan hartuta abiatu ginen **lehenengo sagardo dastaketa** antolatzerara; Astigarraga, Ergobia eta inguruko sagardotegietara joan ginen egitasmo berria azaltzerara, eta nola ez sagardoa eskatzera. Batzuek oso ondo hartu zuten ekimena, beste batzuek muturra pixka bat okertu zuten baina azkenean sagardo kaja emanez bukatu zuten. Beste batzuek eman bai, baina alboko sagardotegiak zer egin zuen galdetu ondoren, eta izan zen haizea hartzerara bidali gitenik ere.



Eguna iritsi zen, goizean prestaketa lanekin hasi ginen. Sagardoa Goiko Iturriko urarekin freskatzen zen bitartean, postuak muntatzen hasi ginen. **Postu bakoitza honela osatu zen:** mahai handi bat, Astigarragako upategi bateko upel txiki bat mahai gainean, sagardotegiaren izena hari itsatsita txuri-gorritz guk



egindako kartel txiki batean, eta alboan hiru edalontzi; edalontziak garbitzeko ur ontzi bat, kortxo-kentzekoa eta eskuzatar bat.

Guztia primeran atera zen, mundu guztia poz-pez geratu zen, bai jendea baita sagardogileak ere; "Festa polita asmatu duzue!", esaten ziguten kalean.

Hala ere, denak ez ziren gorespenak izan; hurrengo egunean upategiko jabeak bronka ederra bota zigun upel guztiak zulatuak zeudela konturatu zenean.

Hurrengo urteetan sagardotegiaren izena postua apaintzeko jarri ziren kañabera batzuetatik zintzilik jarri zen.



HERNANI

ambiente en las fiestas de Astigarraga y Arano. - 5
del batel juvenil de Hernani. - Torneo local de fútbol
el industrial don Cándido Aramburu Recalde

LA GANADA. —
tra hernaniarra
entes frutos. El
Club de Remo
15 de este mes,
maya, ganando
sella regata.
adas en bateles
supremacia her-
a queda clara-
al repetir el
segunda bande-
ingo, día 24, en
do triunfo, tie-
ón, al tener en
ría de edad de
18 años, lo que
ue además se
en la actual
e pueden repe-
e de este juven-
dor, son:
ría II.
bic, Echeverría
sa.
nseguidas por
gran estímulo.

frontón estaba lleno de espec-
tadores hasta la bandera.
Las fiestas de Astigarraga en
honor de Santiago Apostol, han
tenido gran calidad y animación
extraordinaria. Su "corte" o es-
tilo ha sido similar a los sanjua-
nes de Hernani.
Lo que no podemos dejar de
citar, es que a cada paso que
dábamos por Astigarraga, nos
trasladaban, los más encendidos
elogios para la juventud del gru-
po Astigar E. O. E., por las mag-
níficas fiestas ofrecidas y por la
labor que viene realizando en
Astigarraga.
La verdad es que el Astigar,
nos hace recordar (sin ánimo de
comparaciones) a las sociedades
hernaniaras del Mendi-Gaiñ, Harri
Burni, Kimu-Alai y Ekintza.
¿Telepatía o labor de con-
junto a nivel comarcal?
Quede constancia, a petición
de los vecinos de Astigarraga, de
que las fiestas, han merecido mu-
trícula de honor.
FIRMAS SOBRE LA GRAN-
JA. — Desde ayer lunes se vie-
nen estampando firmas de veci-
nos en la Notaría de Hernani
(calle Mayor), en relación con el
asunto de...

agosto un Can-
bol Juvenil.
Los equipos
drán presentar
jugadores como
mínimo. Er-
drán actuar de
radores, como m-
El campeona
a los jugadores
años 1936 a 1938
El plazo de
abierto a parti-
día 27, hasta
agosto.
Las inscripc-
en Deportes A.
Los partidos
juvenil, se dis-
cinto deporti-
—Por impera
no hemos podid-
momento, la
el torneo de
también lo ha
A. D. Puerto,
el comentario,
mañana.
LUCTUOSAS
su alma al To-
dustrial hernani-
Aramburu Rec-
miento ha cau-

Astigarraga, 1976ko uztailaren 26a.

Lo que no podemos dejar de citar es que a cada paso que dábamos por Astigarraga, nos trasladaban los más encendidos elogios para la juventud del grupo Astigar E.O.E., por las magníficas fiestas ofrecidas y por la labor que viene realizando en Astigarraga.

La verdad es que el Astigar, nos hace recordar (sin ánimo de comparaciones) a las asociaciones hernaniarras del Mendi.Gaiñ, Harri Burni, Kimu-Alai y Ekintza. ¿Telepatía o labor de conjunto a nivel comarcal?

Quede constancia, a petición de los vecinos de Astigarraga, que las fiestas han merecido matrícula de honor.

Diario Vasco, 27 de Julio de 1976 . Crónica de Hernani, corresponsal "Galdeano".

Santioz Astigarraga'n

«Baserritarren Eguna» ospatuko da Astigarraga Santo egunez.
Egun potxoloa izango da, aurki jabetuko zeratene Sokamuturrarekin asera, goizeko zortzirelan.
Gero amaiketatik ordubatera, Sagardo Probak Sagardorik iñun probatzezkeru Astigarraga'n probat bear, ardoa Logroño aldean bezela. Astigarraga, Ergo ta ingurumariiko sagardogilleek an eramango dituz etxekorik enonak.
Etxeberria ta Argiñarena beitsolariek kantatuko dute.
Toka Txapelketa izango da eritarrentzat. Sokatira ere aleginduko dira erriko kuadrilla gazteak.
«Matxa» derralari ezaguna lan astun bati aurpe ematekotan da idi irukotearekin. Iru idi, itzal biren f guntzarekin.
Erabili bear duten arriak 3.500 kilbs pixatzen da Ura ez da luma.
Estaltzen duan plaza bakoitzeko bi mila pezetak saria dauka Lan Kide Aurrezkiak eskeiniñik. Baioko d saiatzeak. Diruz kanpo, garáisari (trofeo) eder bat.
An izango da «Maltzeta» trikitilaria bazterrak aial zeko.
Arratsaldeko seiretan, onoko partidu au jokatu da pelotan:
Alutiza ta Goikoetxea lenengoa (Españia'ko txapel dunak), Goikoetxea bigarrena ta Zubillaga'ren aurka.
Ondoren, iru aziotako norgeia'goka, aizkoran, an

Santioz Astigarraga'n

«Baserritarren Eguna» ospatuko da Astigarragan Santio egunez.
Egun potxoloa izango da, aurki jabetuko zeratenez. Sokamuturrarekin asera, goizeko zortziretan.
Gero amaiketatik ordubatera, Sagardo Proba. Sagardorik iñun probatzezkeru Astigarraga'n proba bear, ardoa Logroño aldean bezela, Astigarraga, Ergobia ta inguruko sagardogilleek eramango dituzte etxekotik onenak.

Diario Vasco, "Nere Bordatxotik", Baserrik idazten du". 1980ko uztailaren 23, asteazkena.

1987-1991

44 urtez Donostiako Udalaren parte izan ondoren, 1987an berriro ere Astigarragako Udalak herri independente bezala eratu zen. Egitura berri honetan, **aldaketa asko** izan ziren, besteak beste, festak antolatzeke orduan.

1991n **Goldea Elkartea** eratu zen, eta **Zipotza Elkartearekin batera** Santa Ana egunaren antolaketaz arduratu ziren.

Sagardo dastaketara berrikuntzak heldu ziren: egun horretarako diseinatutako edalontziak erosteko aukera izan zen.

Eta sagardoarekin batera, txorizo pintxoak banatu ziren dohain. Jendeak arkupeetik postura zerbitzaria txorizoarekin ikusten zuen bezain pronto, beregana hurbiltzen zen pintxoak hartzera, eta askotan postura ailegatu baino lehen, zerbitzaria txorizorik gabe gelditzen zen.

2004

2003ko ekainean, Astigarragako Udalak, herriko kultur taldeek eta Astigarraga eta inguruko sagardotegiek **Sagardun Partzuergoa** eratu zuten. 2004an antolatu zuen lehenengo Sagardo eguna. Hemendik aurrera, sagardogilea izan da bere sagardoa herritarrei zerbitzatzeko diena.



2005

Astigarragako foru plazan egiten ari diren lanak zirela eta, Santa Ana eguneko sagardo eguna **Kale Nagusian** egin zen. 40 urte hauetan tokiz aldatu den urte bakarra izan da.



2008-2009

Santa Ana eguna aste-bukaera tokatzen zela eta, Goldea eta Zipotza elkartekoek zenbait herri gonbidatzea erabaki zuten.



2008an **Ezpeletako herria** izan zen gonbidatua. Beraien produktu bereziena, Ezpeletako piperra, hainbat eratarata dastatzeko aukera eskaini zuren, sagardoarekin batera. Arratsaldean, Iparraldeko herri kirol saioekin amaitu zen eguna.

2009an **Zangozako herriaren txanda** izan zen. Hauek musika, dantza, herri kirolak eta gastronomia uztartu zituzten. Hala, gazta, ogi-mamiak eta inguruko hainbat produktu dastatzeko aukera izan genuen, eta arratsaldean artzainak ardiei ilea moztzen ikusi genituen.



Baina urte horretan bitxiene plaza erdian **10.000 litro inguruko upel bat erakitzea** izan zen. Goldeak antolatuta, Jose Manuel Sanchez upelgile asturiarrak etxetik dobelak eta uztaiak eginak ekarri zituen, eta goiza upela muntatzen igaro zuen.

Ikuskizun aparta goizekoa, ia galtzen ari den lanbidea bertatik bertara ikusteko aukera ederra izan genuen. Arratsaldean, upela enkantean atera zen eta azkenean Sagardun Partzuergoak eraman zuen, **Sagardoetxean** ipintzeko.



2010

Santa Ana eguneko XXXV. edizioa ospatu genuen eta festak **parte-hartze handia** izan zuen: 15 sagardogilek parte-hartu zuten sagardo dastaketan, giro aparta izan den plazan eta 1.003 edalontzi saldu ziren.



2020


Santa Anaren 45. urteurrena ospatu eta jendearen parte-hartzea sustatzeko, aurten **sagardo edalontzirako irudi lehiaketa** antolatu dugu. 13 parte-hartzaile izan dira denera eta epaimahaiak erabakitako marrazki irabazlea Txemi Valdecantos-ena izan da.

Aurten koronabirusaren eraginez **fiesta egoera berrira moldatuko da** eta sagardo dastaketaz gozatzeko aukera izango da familiartean.

Historian zehar sagardogintzak urte gogorrak bizi izan ditu eta modu askotakoak izan dira sektoreak saihestu behar izan dituen arazoak, baina beti kreatibitatez eta berrikuntzaz gaingitu ditu.

Sektorearen lehendabiziko krisi handia XVII. mendean iritsi zen artoa eta beste laborantza berrien sarrera eta zabalpena, ardozale kopuruaren handitzea eta balearen arrantzarako egiten ziren Ternuarako bidaien etenaldiaren ondorioz. Sagarrondoan landaketak alde batera utzi ziren eta sagardoa bertan kontsumitzeko produktua izatera pasa zen. Industrializazioak eta trenbidearen sorrerak ere beste kolpe gogor bat eragin zuen sektorean, familia askok baserria utzi eta hirigunera bizitzera joateko erabakia hartu baitzuen. Urumea bailaran kokatutako sagardotegiak izan ezik, ia denak desagertu egin ziren.

Zalantzarik gabe, koronabirusaren eraginez sortu den egoera hau erronka berri bat izango da sagardogintzaren sektorearentzat. Hala ere, zailtasunak zailtasun, argi daukagu sagardoaren sektorea, instituzio, kultur talde nahiz herritarren arteko **elkarlanari esker egoera hau ere gaingitzea lortu eta sagardogintzak aurrera egingo duela** orain arte egin duen moduan.



**SANTA ANA 2020
45 URTE**

Ezarritako segurtasun neurriak mantentze aldera, aurten ezingo dugu urteroko sagardo dastaketa Foru Plazan ospatu, baina horrek ez du Astigarragan hain berezia den egun hau ospatzeko aukera eragotziko, izan ere **festa herritarren etxeetara gerturatu eta lagunartean zein familiarartean Astigarragako 45. sagardo dastaketaz gozatzeko aukera emango duen pack berezi** bat prestatu baitugu.





Bertan, sagardo dastaketaz gozatzeko beharrezko guztia aurkituko duzue:

- 2 sagardo botila.
- Santa Anako irudi lehiaketan irabazle suertatu den marrazkiarekin serigrafiatutako sagardo edalontzia.
- Santa Anako zapia.
- Santa Anako liburuxka.



Festa etxeetatik haratago zabaltzeko asmoz, familiaretan zein lagunartean gozaten dituzuen sagardo dastaketen argazkiak zuen sare sozialetara igotzeko gonbidapena luzatzen dizuegu **#santaana2020** traola erabilia eta argazki esanguratsuenak sari bat jasoko du. Argazki guztiak bildu eta bilduma bat argitaratuko dugu sare sozialetan herritarrek sagardo egun berezi hau nola ospatu duten ikusi ahal izateko.

Honetaz gain, Santa Ana egunean **bideo** bat argitaratuko dugu Astigarragako Udaleko webgune eta sare sozialetan Euskal Herriko Sagardo Egunik zaharrena denari omenaldi xume bat egiteko asmoz. Hemen izango duzue ikusgai:

-  www.facebook.com/Astigarragako
-  www.twitter.com/AstiarrakoUdala
-  www.youtube.com/channel/UCY70QwHDRG4hPY_IXFuXNuA
-  www.astigarraga.eus

Azken batean beti herritarrak izan dira sagarra eta sagardoaren sektorearekin batera eta Udalaren laguntzarekin sagardoaren kultura bizi izan dutenak eta ezagutzera emateko prest egon direnak. Bide horretan aurrera jarraituko dugu etorkizunean ere **sagardoaren kulturak batu gaitzan**.

Ondo pasa!



**SAGARDOAREN
LURRALDEA**

el territorio de la sidra



Sagardoetxea

herri baten erroak